



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza. Tfonoa.: 313030 IGELDO

KAIXO HERRIKIDE!!!!

Urte berrian sartu ginenetik bi hilabete igaro direnean heldu zaigu aurtengo lehenengo Orri Informatiboa. Eta urte berriarekin aldaketak etorri ohi direnez, guk ere ikutu berezi bat eman nahi izan diogu Orri Informatiboari. Esku artean duzuen honetan aldaketa handirik nabarituko ez duzuen arren, Orri Informatibo honen atzean biltzen garenok dagoeneko jarri ditugu aldaketarako bideak martxan.

Jakina den bezala, Orri Informatibo honen helburua igeldotar guztioi herrian gertatzen diren gauzen berri ematea da. Horretarako, beharrezkoa da dudarik gabe komunikazio talde eta sare egoki bat izatea informazioa behar bezala landu eta herriari zabaltzeko. Baina komunikazioaren sare honetan izugarritzko husuneak ditugula ohartu gara eta horregatik, premia horiek asetu nahian edo, talde bat osatzea erabaki dugu.

Pixkanaka-pixkanaka bada ere, aurrera egitea da gure asmoa eta horren adierazle izango da hurrengo Orri Informatiboa. Izan ere, hasteko, hemendik aurrera, orriaren maiztasuna finkatuko dugu. Bi hilabetero helaraziko zaizue inongo arazorik sortzen ez bada behintzat.

Eta azken momentuko gertakaririk izanez gero, berau ere ahalik eta azkarren zabaltzen saiatuko gara.

Eduki aldetik ere, aldaketak izango dira. Herri Kontseiluan landutako gaiak orain arte bezala beren lekua izaten jarraituko dute baina, gai horiez gain, herritarrentzat interesgarriak izan daitezkeen bestelako gaiak ere tratatzeko asmoa dugu. Elkarrizketak, erreportajeak, iritziak... eta antzeko edukiak sartzea pentsatzen dugu, honela, jendearen interesa piztuko dugulakoan.

Esan bezala, herriko komunikazioa bultzatu eta indartzeko bide izan nahi dugu baina horretarako nahitaezkoa da guztion partehartzea. Bertako talde zein banakoren ekarpenak gustora jasoko genituzke, eta ez guk bakarrik, baita herritar guztiek ere. Balorazioak, iritziak, kritikak edo dena delakoak egin nahi dituenak idatzi besterik ez du helbide elektriko honetara: InfoGELDO@euskalherri.org

Tira, esandakoak esanda, ez gara gehiago luzatuko. Besterik gabe, hemen doakizue Herri Kontseiluak azken bileretan aztertu dituen gaiak. Eta gaien aurretik, diru kontuen datuak dituzue interesatzen zaizkizuenontzat.

DIRU KONTUAK

Telefonikako bi faktura:	91,85 euro
	82,09 euro
Orri informatiboaren banaketa:	200,00 euro
Orri informatiboa inprimatzea:	257,00 euro
Prokuradorearen faktura:	561,40 euro
Prokuradorearen fondoa:	537,37 euro
Idazkaria:	52,50 euro
Jordi Pardoren bidaia:	178,00 euro
Jagoba Rekondoren bazkaria:	32,00 euro

HIRIGINTZA

VENTA ALEGRE-KASKOA:

Herri Kontseiluan hitz egindakoaren arabera, argi geratu da Venta Alegre gunean arrisku handia dagoela eta beraz, Kaskorako bidean trafikorik ez sartzea izango litzatekeela egokiena. Guztiz peatonala egitea, alegia. Hala ere, autobusarentzat, banaketa lanetarako eta bertakoentzat erabilgarria izatea ere komeniko litzatekeela uste da. Horregatik, berehalako irtenbide moduan, ibilgailuen abiadura jaisteko neurriak hartzea da nagusitzen den idea. Leku aldetik dagoen mugagatik eta ondoren egin daitezkeen proiektuekin bateragarriena delako, hain zuzen ere.

Proiektu horien artean, Eskolakoek proposatu dituzten hiru alternatiba egongo lirateke. Alternatiba horiekin bat egin dutenen 38 sinadura bildu dituzte.

- Lehenengo proposamenaren arabera, Lizardi eta Sankristaben tarteko bide zatia oinezkoentzako soilik izango litzateke eta autobusa bariantetik pasako litzateke.

- Bigarren proposamenaren arabera, aldiz, bide zati hau oinezkoentzako gune bihurtuko litzateke baina autobusa eta banaketa lanetarako irekiko litzateke.
- Hirugarren proposamenak bestalde, kotxeen abiadura murriztea izango luke helburu, erreduktoreak eta lorategi edo antzekoak jarritz.

Aipatu bezala, Herri Kontseiluan hitz egindakoaren arabera, erreduktoreena egokitzat hartzen da beste alternatibekin bateragarria delako eta berehalako irtenbide bezala honekin aurrera egitea onartzen da. Lorategiena edo aparkatzeko lekuak egokitzearena, berriz, ez da ondo ikusten, ondoren hartu daitezkeen erabakiengatik.

Dena den, oraindik ez dago argi zer egin eta trafikoarekin bilera egiteko asmoa dago. Herri Batzarra ere egingo da dauden aukeren artean egokiena erabakitzeko. Juancarrek gurasoekin eta trafikoarekin hitz egingo du bilera antolatzeke.

HERRI BIDEAK:

Herri bideei dagokienean, Pilotegitik Otondo atzera doan bidearen egoera izan dute mintzagai. Bide hau txukuntzea beharrezkotzat hartu dute eta Atxukarro, Hirigintzako zuzendaria, jakinaren gainean ere jarri dute dagoeneko. Proposamena kontutan hartuko dela dirudi. Arretxe azpiko herri bidea, aldiz, oraindik airean geratu da.

AZKEN SENTENTZIAK:

Hirigintzako beste gai batzuei helduz, Maddiola eta Elena Perezen auziak aipatu behar ditugu. Alde batetik, Maddiolaren auziari dagokionean, Hirigintzako Zuzendariarekin bilera bat egin zen akordiorako proposamena aurkezteko baina oraindik ez dute erantzunik eman. Horretarako hamabost eguneko epea du. Erantzunaren zain geratuko gara beraz.

Elena Perezen auzian, bestetik, aipatzekoa da EAeko Auzitegi Nagusian (TSJPV) aurkeztu zuten errekurtsua ere galdu egin dutela. Izan ere, sententziak dionaren arabera, ingurunea obra hasi aurretik zegoen bezala utzi behar da. Bitartean, bizpahiru astez, beraiek eta Udaletxeak zer egin erabakiko dute.

ETXEAK ERAIKITZEKO BAIMENAK:

Etxeak egiteko Udaletxeari eskatutako baimenak bi dira eta oraindik ez dute erantzunik jaso. Atxukarrok Hirigintzako Zuzendariak baimen hauetaz hitz egiteko bilera egin du Nekazal Diputatuarekin eta Herri Kontseiluak egindako alegazioak ere eman dizkio Nekazaritza Sailari baina, esan bezala, oraindik ez dute inongo baimenik eman.

IRREGULARTASUNAK:

Hirigintzaren barnean ere aipatzekoa da Agiti 42an egiten ari diren lur betetze lanek bertakoen eta auzokoen artean sortutako ikamikak. Izan ere, Udaletxean baimenaren zehaztasunak aztertu ondoren, irregulartasunak egon daitezkeela uste da.

Hasteko, ez da garbi ikusten erreka edo urbiderik badagoen. Horrez gain, Nekazal Ustiapenak emandako baimenak datu zalantzarri asko dituela esaten da. Eta azkenik, baimena izatekotan, 4800m3 urentzako izango litzateke eta bolumen hau pasata egon daitekeela dirudi.

Ikus daitekeenez argitzeko gauza asko dago oraindik gai honi dagokionean. Hori dela eta, Herri Kontseilua datu guztiak baieztatzen saiatuko da eta baimen horretan zehaztutako baldintzak betetzen ez badira, obra gelditzea eta gauzak zeuden bezala

jartzea eskatuko du. Erabakitakoaren berri izan ahala jakinaraziko dizuegu.

Azken hilabeteetan ere izan dira bestelako arazoak Etxebizitzaren kooperatibaren inguruan. Dagoeneko arazoak konpondu direla dirudien arren, oraindik hitz egiteko gauza batzuk airean geratu dira eta Juancarrek Maite (ESARBE)-rekin hitz egiteko asmoa du.

NEGUA

SINDIKATUA

Azken aldian, Sindikatua berritzeko asmoa ere Herri Kontseiluko gaien artean ibili da. Alkatearekin bilera noiz egin zain egon dira euren proposamenaren berri eman asmoz. Azkenean, bilera hau ere egin dute eta alkateak gai honen inguruko aurretiko informaziorik ez bazuen ere, bileran esandakoak entzun ostean, ideia positibotzat jo du. Bileran bildutako informazioaren berri emango diete Sustapen, Turismo eta Hirigintzakoiei egitasmoa nola bideratu daitekeen aztertu dezaten.

NEGUA

ESKOLA ZAHARRA

Dagoeneko erregistratu da Udaletxean Igeldoko talde guztien artean adostutakoa. (Aurrerago azaltzen den idatzi batean argi eta garbi dago adierazia guztia.) Eskola zaharraren gestioa nola egingo litzatekeen azaltzen da bertan, eta eraikuntzaren distribuzioa ere bai. Kopia bana eman zitzaion zuzenean Patrimoniokoei eta Hezkuntzakoei (Artemix). Baina gaiaren garrantziaz jabeturik beste bilera bat egitea ere aurreikusten da eta aipaturiko erakunde horiekin biltzeko asmoa dago berriz.

Aipatutako erabakiez gain, proposamen berririk egin duenik ere bada. Pertsona batek Herri Kontseiluari helarazi dion idatzi baten bidez, Eskola zaharrak goiko solairuan daukan etxebizitzan bizitzeko proposamena egin du. Bertan bizitzearen

truke zer egingo lukeen eta beste hainbat zehaztapen ere azaldu ditu. Herri Kontseiluak etxebizitzari horrelako erabilera ematea interesgarritzat jotzen du baina edozein erabaki hartu aurretik eskolaren zesioa lortu, funtzioak ondo finkatu eta ondoren honelako proposamenen nondik-norakoak behar bezala aztertu beharko liratekeela uste du.

ESKOLA BERRIA

Eskola Zaharrarekin zer egin gabiltzan honetan, Eskola berriari herriak zer erabilpen eman diezaiokeen ere eztabaidatzen ari dira Eskolako gurasoak. Jakina den bezala, eztabaida konplexua da, izan ere, interes eta ikuspuntu ezberdinak daude tartean. Hala ere, oinarrizko kontzeptu bezala argi dute eskola igeldotarra dela eta ideia hau bultzatu behar dela. (Egungo egoeran Donostiako Udaletxeak hartzen duen papera guztiz zirkunstaziala da, eta Igeldoko nahiaren gainera ezingo luke ezertxo ere egin).

Lehen urrats bezala, eskola berriari erakustea proposatzen dute egia baita herritar gehienok eskola berria ez dugula ezagutu ere egiten. Honen inguruan, gurasoak zer edo zer antolatu nahian dabilta: ikastola zaharraren jaiotza, argazkiak... Inaugurazio festa ere hor zehar dabil. Aipaturiko bi jaialdiak batera egingo liratekeen ez dago zehazturik oraindik baina aukera posibletako bat izango litzateke.

ERRAUSTEGIA

Errauste plantarena ere azken aldian denon ahotan dabilen gaia da. Arazo honi aurre egiteko, hau da, Erraustegiaren aurka ekiteko taldea berriro sortzea komenigarria izango litzatekeela irizten dio Herri Kontseiluak. Eta are gehiago, taldea birsortzeaz gain, Gipuzkoa mailako koordinadoran egotea ere komeniko litzatekeela uste du. Oraingoz ez da talderik martxan jarri baina jendea animatzea egokia litzateke.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

BESTELAKOAK

Udaletxeak UDALINFO Igeldon jartzeko proposamena egin du. Tresna honek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: e-mailak bidali daitezke, Udaletxeak ematen dituen ziurtagiri batzuk eskatu daitezke (errola-ziurtagiria adibidez) eta beste operazio batzuk ere egin daitezke. Interesgarria izan daitekeela pentsatzen da eta informazio gehiago bidal dezatela eskatu da non kokatu ere aztertuko. Jabier Iraolari bidaliko zaio informazioa.

Kultur etxeko ADSLa ondatu da. Tximista baten ondorioz ADSLrik gabe geratu da Kultur Etxea. Printzipioz konpontzea erabaki da baina Kultur Etxeko barrukoak asegururik ba ote duen zalantzak daude. Udaletxean galdetuko dute.

Soziedadadea. Herritar batek soziedadadea beste era batean antolatzeke eskaera egin du. Helburuak errespetatuz gero, hau da, herritar guztientzako izatea, bazkide zerrendarik ez egotea eta ez pribatizatzea, baldintza horiek betez gero, interesgarritzat jotzen da soziedadadea dinamizatzeko pertsona bat egotea. Oraindik asmoak zeintzuk diren aztertu beharko dira. Mikel Arruti izango da arduraduna.

Proiektu berriak: Herri Kontseiluko Mikel Arruti eta Juancar tartean direla, talde berri bat osatu da Herri Kontseilua berritzeaz gain, proiektu berri gehiago bideratzeko asmoz. Helburua, Igeldori buruzko informazioa eman, egungo egoera azaldu eta datozen proiektuei buruzko eztabaida sortzea da. Proiektu hauen aurrean zer egin behar den ere aztertu nahi da herritar guztien artean. Hori dela eta, Herri Batzarra, zonaldekako bilerak, mahainguruak... egitea proposatzen da. Honek guztiak ekar ditzakeen gastuak Herri Kontseiluak ordainduko litzuzke.

